



LIBURUA

Irisetik begira



DON USNER

BASAIRISA
LOUISE GLÜCK
ITZULPENA: GARAZI UGALDE
 ELKAR, 2021

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Liburu honen jatorrizko bertsoa 1992. urtekoa da eta 2020an Louise Glück idazleak Nobel Saria jaso ostean ekarri du Garazi Ugaldek euskara lehen aldiz.

Poema liburua irakurri aurretik itzultzailearen hitzaurrearekin egingo dugu topo. Asko eskertu ditut bere aipamen, gomendio eta irakurketa klabe batzuk: “iris” hitzaren esanahi eta dimentsio ugariak, bereziki, begirada zabaltzen lagundu baitidate.

Aurkibidea begiratzuz gero hiru azpiatal bereiz ditzakegu, sarreran Ugaldek adierazi moduan: batetik, landareen izena daramaten poemek osatua, zeinak gehienak guztiz ezezagunak egin zaizkidan. Kasu horietan ahots poetikoa landareena da, eta beraien buruaz hitz egiten dute (21. orrian, “esnatu nintzanean baso batean nengo”) edota beste norbaiti zuzenduz,

–guri?–, (41. orrian: “Halako gorrotoa badidazu ez hartu lanik ni izendatzen”).

Beste poema batzuek momentu edo denbora jakin batzuen izena hartzen dute. Horietan ahotsa orojakile eta autoritarioa da, eta tonuak aginduzkoa dirudi. Bigarren pertsonaren pluralari zuzentzen zaio ahotsa, edonoren gainetik hitz egiten ariko balitz bezala (39. orrian: “Jakin ezazue, ordea, besterik espero nuela adimena eman zaien bi izakirengandik”; 54. orrian: “Ez zintuztedan sortu bakarrak izateko”). Itzultzaileak jainko zerutarren ahotsa aipatu du sarreran eta lagungarria egin zait bere aipatean.

Beste poemei *Bezperak* eta *Matutiak* deitzen die Glückek. Matutiak goizeko errezoak dira, eta Bezperak ere errezoak egiten omen diete erreferentzia. Orokorrean, esaldi luzexekoak erabil-

tzen ditu eta narratiboagoak bihurtzen dira poemok.

Osotasuna emate aldera Glückek hiru ezaugarri estilistiko erabili dituela uste dut: bata eremu semantikoa landareetan zentratzea. Bestea, galdera erretorikoena. Nabarmena da asko erabiltzen dituela, irakurlea bera interpellatuz. Eta, azkena, irudi boteretsuak darabiltzala (61. orrian, “zuhaitz biluzian barna doan argi distirinta”).

Orain arte idatzi dudan liburu kritikarik zailena izan da. Aitortu behar dizuet poema batzuk behin eta berriz irakurri ta ere zerbait galtzen ari nintzelako irudipena izan dudala. Nire buruari gogorazi behar izan diot dena ulertu gabe ere goza daitekeela irakurketaz eta horixe egin dut: Louise Glück estatubatuarren iradokitzen dituen irudiei nire irisean sartzen utzi diet, eta tarteka suzko erroberak ikusten ari nintzela iruditu zait. ●